

GALDE-ERANTZUNAK

Dantzara joan al naiteken

«Maria'ren alaba ta Irugafendafa naiz eta nere kezketatik ateratzeko Berofek esatea nai nuke ea lengo erako dantzara joan al naiteken; ufena ea gauzez ere dantza ortara joan al naiteken; eta azkenez dantza lotuan asten badira zer egin edo ortara ere joan al naiteke? *Maria'ren Alaba batek.*»

Mariaren Alaba gogatsua: zure galdeai bereiz erantzun nai diet?

1.^a «Lengo erako dantzara» edo euskal dantzara Mariaren alabak eta Irugafendafak joan ditezke kontzientzi saririk gabe:

- A) Dantza ori Pesta-buruetan edo urtean bakanetan danean. Baño
- B) Dantza ori egunez egiten danean.
- D) Dantzaren aufeko ta ondoreko egon-aldietan bear dan berexasuna mutilen eta neskatxen alkietan badanean.

2.^a A) Gauzezko dantzak Elizak ez ditu beñere ontzat emango, Jaungoikoak Paulo Apostolu santuaren agoz diolako: *Utzi ditzagun... illunbetako eginbi-deak.*» (Rom. XIII-12) «Ilunbetako lana, argiteko lotsa» esaten zuen gure aufekoak eta guk esan dezakegu: Gauzezko dantza, egunezko lotsa.» Paulo Apostoluak berak Tesalonika'koai: Zuek guziok argi-kumeak eta egun-kumeak zerate: ez gera gautafak, ezta ilunbetakoak ere. (V-5).

B) Gauzezko dantzak afixkua berekin du. Nai ainbat argiz inguraturik egon da ere, gauzez beñere dantzararien artean egunez añako begiramenik ezta.

- D) Gazte nabarmenak gaueko dantza nai du. Egunez ez du nai; gauzez.
- E) Geroztik gauzezko dantzara Mariaren Alaba eta Irugafendafa ez ditezke urbidu. Jolas edo jostaketa afixkutsua dalako.

G) Gauzezko dantza afixkutsua da, ez dantzakoan bakañik, baizik dantzarakoan eta dantzaren ondorean ere bai, batez ere basefitarentzat.

3.^a «Dantza lotuan asten badira zer egin?» Mariaren Alabak eta Irugafendafak alako dantza izango dala dakian tokira ez joan. Eta alakoan asten badira andik alde egin. Onatx zergatik:

A) Dantza askatua jakin, artarako era iduki ta lotura jotzen duenak, afixkua bilatzen duela berak adierazten du.

B) «Lengo erako dantzak» dakizkitzuen erietan dantza lotuak gaiztakeri kutsu geiago darama, ba, gure dantza onak ezagutu ez dituen erietakoak baño.

D) Dantza loturik izan ez dan tokietan ori sartzeko bidea ematea, artan ibiltzea edo dabilzenai begira egotea, gaizpidea edo *escandaloa* jartzea da.

E) Dantzetaz itzegitean Elizaren Gurasoetan lasaiena Sales'ko Prantzisko santua da. Eta onke esaten du: «Dantzak berez ez on eta ez gaizto, baizik edozeñetarakoak dira. Eta ongi edo oker erabili ditezkenak, baño geienean afixkutsuak. Geienean dantzatzan dan erari begiratzen bazaio, esan diteke dantza gaiztakerira daraman gainbera dala; eta geroztik amildegiz eta afixkuz betea.» Oneraño Salesko Prantzisko santuak. Geroztik ikusi ea Mariaren Alabak eta Irugafendafak ofela geienean egiten diran dantzetara urbidu ote zaitezketen. Zerofek ikusi.—A. I.